

## Ley de 21 de julio de 1876

Gaceta de Madrid nº 207, de 25 de julio de 1876.

DON ALFONSO XII, Por la gracia de Dios Rey constitucional de España: A todos los que las presentes vieren y entendieren, sabed: que las Cortes han decretado y Nos sancionado lo siguiente:

**Artículo 1º.** Los deberes que la Constitución política ha impuesto siempre a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama, y de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del Estado, se extenderán, como los derechos constitucionales se extienden, a los habitantes de las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Álava del mismo modo que a los de las demás de la Nación.

**Artículo 2º.** Por virtud de lo dispuesto en el artículo anterior, las tres provincias referidas quedan obligadas desde la publicación de esta ley a presentar, en los casos de quintas ó reemplazos ordinarios y extraordinarios del Ejército, el cupo de hombres que les correspondan con arreglo a las leyes.

**Artículo 3º.** Quedan igualmente obligadas desde la publicación de esta ley las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Álava a pagar, con la proporción que les correspondan y con destino a los gastos públicos, las contribuciones, rentas e impuestos ordinarios y extraordinarios que se consignen en los presupuestos generales del Estado.

**Artículo 4º.** Se autoriza al Gobierno para que, dando en su día cuenta a las Cortes, y teniendo presentes la ley de 10 de Setiembre de 1837 y la de 16 de Agosto de 1841, y el decreto de 29 de Octubre del mismo año, proceda a acordar, con audiencia de las provincias de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya si lo juzga oportuno, todas las reformas que en su antiguo régimen foral exijan, así el bienestar de los pueblos vascongados como el buen gobierno y la seguridad de la Nación.

**Artículo 5º.** Se autoriza también al Gobierno, dando en su día cuenta a las Cortes: Primero. Para dejar al arbitrio de las Diputaciones los medios de presentar sus respectivos cupos de hombres en los casos de

## 1876ko uztailaren 21eko Legea

Madrilgo Gazeta, 207 zk., 1876ko uztailaren 25ekoa

ALFONTSO XII.ak, Jainkoaren graziaz Espainiako Errege konstituzionalak, Lege hau ikusi eta ulertzen duten guztiei: Jakin ezazue Gorteeek onartu dutela eta Nik berronetsi dudala honako hau:

**1. artikulua.-** Konstituzio politikoak beti ezarri die espainiar guztiei legeak deitutakoan armak hartzeko betebeharrak eta Estatuaren gastuetarako nor bere edukien heinean ekarpena egitekoa. Betebeharrok Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako biztanleei hedatuko zaizkie, Nazioko gainerakoei bezala, eskubide konstituzionalak hedatzen direnez.

**2. artikulua.-** Aurreko artikuluan xedatutakoaren indarrez, aipatu hiru probintziak behartuta daude, Lege hau argitaratzen den unetik, soldadu-deialdi ohiko eta ohiz kanpokoak direla-eta, legeen arabera dagokien gizon-kopurua aurkeztera.

**3. artikulua.-** Halaber, Lege hau argitaratzen denetik behartuta daude Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako probintziak Estatuko aurrekontu orokorrean finkatutako kontribuzio, errenta eta zerga ohiko eta ohiz kanpokoak ordaintzera gastu publikoetarako, dagokien proportzioan.

**4. artikulua.-** Gobernua baimentzen da, bere garaian Gorteei horren berri emanez eta 1837ko irailaren 10eko eta 1841eko abuztuaren 16ko Legeak eta urte bereko urriaren 29ko Dekretua kontutan hartuz, bai euskal herrien ongizateak eta baita Nazioaren gobernu zuzenak eta segurtasunak ere eskatzen duten beren foru-araubide zaharraren aldaketa oro erabakitzeari ekin diezaion, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziei entzunda, egoki baderitzo.

**5. artikulua.-** Gobernua baimentzen da, bere garaian Gorteei horren berri emanez, honako hauetarako: Lehenengoa: Soldadu-deialdi ohiko eta ohiz kanpokoetarako bakoitzaren gizon-kopurua

quintas ordinarias y extraordinarias. Segundo. Para hacer las modificaciones de forma que reclamen las circunstancias locales y la experiencia aconseje, a fin de facilitar el cumplimiento del art. 3.º de esta ley. Tercero. Para incluir entre los casos de exención del servicio militar a los que acrediten que ellos o sus padres han sostenido con las armas en la mano, durante la última guerra civil, los derechos del Rey legítimo y de la Nación, sin que por estas exenciones se disminuya el cupo de cada provincia. Cuarto. Para otorgar dispensas de pago de los nuevos impuestos por los plazos que considere equitativos, con tal que ninguno pase de 10 años, a las poblaciones vascongadas que se hayan hecho dignas de tal beneficio por sus sacrificios de todo género a favor de la causa legítima durante la pasada guerra civil, así como a los particulares que hayan tenido que abandonar sus hogares por la misma causa o sido por ella objeto de persecuciones.

**Artículo 6º.** El Gobierno queda investido por esta ley de todas las facultades extraordinarias y discrecionales que exija su exacta y cumplida ejecución.

Por tanto: Mandamos a todos los Tribunales, Justicias, Jefes, Gobernadores y demás Autoridades, así civiles como militares y eclesiásticas, de cualquier clase y dignidad, que guarden y hagan guardar, cumplir y ejecutar la presente ley en todas sus partes.

Dado en Palacio el veintiuno de Julio de mil ochocientos setenta y seis

YO EL REY.

El Presidente del Consejo de Ministros,  
Antonio Cánovas del Castillo.

aurkezteko moduak Aldundien esku uzteko. Lehenengoa: Soldadu-deialdi ohiko eta ohiz kanpokoetarako bakoitzaren gizon-kopurua aurkezteko moduak Aldundien esku uzteko. Bigarrena: Lege honen 3. artikulua betearazteko tokian tokiko zer-nolakoek erakutsi eta eskarmentuak aholkatu dezaten moduko aldaketak egiteko. Hirugarrena: Azken gerrate zibilean beraiek edo beraien gurasoek bidezko Erregearen eta Nazioaren eskubideak armak hartuta defendatu zituztela egiaztatu dezatenak soldadutzatik salbuesteko kasuetan kontutan hartzeko, salbuespen horien ondorioz probintzia bakoitzaren kopurua gutxitu gabe. Laugarrena: Joan den gerrate zibilean legezko kausaren alde era guztietako sakrifizioen kariaz onura horren irabazle egin diren euskal herriei eta, baita ere, arrazoi berberagatik etxea utzi edota jazarpena pairatu behar izan duten herritarrei bidezkoak iruditzen zaizkion epeetarako, beti ere gehienez hamar urterako, zerga berriak ordaintzeko salbuespenak emateko.

**6. artikulua.-** Gobernua, Lege hau zehatz eta osorik betetzeko beharrezko ahalmen berezi eta aukerako guztien jabe da Lege honen indarrez.

Beraz, Auzitegi, justizia, buru, gobernadore eta gainerako agintaritzei, dela zibilei, dela militarrei, dela Elizakoei, edozein mota eta mailatakoak direla, agintzen diet lege hau oso-osorik bete eta betearazi dezatela.

Errege-jauregian emana, mila zortziehun eta hirurogeita hamaseiko uztailaren hogeita batean.

NIK, ERREGEK

Ministro Kontseiluko lehendakariak  
Antonio Cánovas del Castillo